

“SILOREN MEZUA”REN INGURUKO IRUZKINAK

«Iruzkin» hauek ez dituzte ukitzen Siloren Mezuan agertzen diren gai guztiak, baizik eta idatzi hau hobeki ulertzeko beharrezkoak iruditu zaizkigunak soilik.

Siloren Mezua ulertzeko egingo ditugun hurbilketa hauek liburuaren ordena jarraituko dute. Beraz, lehen atala «Barne-begirada» liburuan agertzen diren kapitulu eta ahapaldiei dagokie; bigarrena, «Esperientzia»ri buruzko hausnarketari; hirugarrena, berriz, «Bidea»ri.

EDUKIA

Lehen atala: *Siloren Mezua*. Barne-begirada.

Bigarren atala: *Siloren Mezua*. Esperientzia.

Hirugarren atala: *Siloren Mezua*. Bidea.

Itzulpen eta zuzenketa lanak

Ibone Elordi Aristondo

Larraitz Garmendia Munduate

“Siloren Mezua”ren Lehen atala

Lehen atalean, «Barne-begirada» liburua komentatuko dugu. Lehen hiru kapituluetan, hitzurre gisa, kontuan izan behar diren gaiak aipatzen ditu autoreak, arreta guztiz, gai garrantzitsuak zuzenki kokatu ahal izateko.

V. kapituluraino egiten diren azalpenek zentzugabetasun kutsua dute, eta baztertu egingo ditu behin betiko egiaren bila dabilenak. Bertan aurkituko ditugu kontuan hartzea merezi duten kapitulu eta ahapaldi batzuk. Baina, lehenik eta behin, gure buruari galdetu behar diogu: Zer helarazi nahi da lan honekin? Irakaspen bat helarazi nahi da bizitzaren zentzuarekin zerikusia duen giza portaerari buruz eta gizakiaren barnekoari buruz.

Zergatik du «Barne-begirada» titulutzat? Ikusmen-organoa ez al dago jarrita kanpoaldeko mundua ikusteko, leiho bat edo bi bailiran, kasuaren arabera? Ez al dago jarrita zabal-zabalik, egunero, kontzientzia iratzartzen denerako? Begiaren hondoak kanpoko munduaren inpaktuak jasotzen ditu. Baina, batzuetan, betazalak ixten ditudanean, kanpoko mundua gogoratzen dut, edo imajinatzen dut, edo esna amesten dut, edo amesten dut. Mundu hori pantaila batean begiratzen duen barneko begi batekin ikusten dut. Ez da, ordea, kanpoko mundua ikusteko erabiltzen dudana begi berbera.

«Barne-begirada» aipatzeak zera dakar berekin: begira dagoen norbait eta begiratzen den zerbait daudela. Hortaz da liburua; izenburuak berak ustekabeko oharpen bat jartzen du agerian, eta inozoki onartzen den ororen kontra jartzen gaitu. Liburuaren izenburuak ideia hauek laburtzen ditu: «Badira beste begi batzuekin ikusten diren gauza batzuk. Eta baita ezohiko kokaleku batean jar daitekeen begirale bat ere». Orain, bereizketa bat egin beharra dugu.

Zerbait «ikusten dut» diodanean, nire begiak hunkitzen dituen fenomeno baten aurrean jarrera pasibo batean nagoela iragartzen dut. Ordea, zerbait «behatzen dut» diodanean, nire begiak norabide jakin baterantz begira jartzen ditudala adierazten dut. Ia zentzu berean bereiz ditzakegu «barnean ikustea» eta «barnera begiratzea». Barneko ikuskari batez konturatzen naizenean, «barnean ikustez» ari naiz (norabiderik gabeko pentsamenduetan edo ametsetan nagoenean gertatzen den bezalaxe). Ordea, «barnera begiratzea» nire kontzientziak daraman norabide aktibotzat hartzen dut. Horrela, gogora ekar ditzaket bai nire ametsak, bai nire iragana edota nire fantasiak ere; aktiboki begiratu, itxurazko zentzugabetasun horri argia eta zentzua eman asmoz. Barne-begirada kontzientziaren norabide aktibo bat da. Itxuraz kaotikoa eta nahasia dirudien barne-munduan zentzua eta esanahia bilatzen dituen norabidea. Norabide hori begirada bera baino lehenagokoa da, begirada bera bultzatzen baitu. Norabide horrek bide ematen dio barne-begiradaren jarduerari. Ohartzen bagara barne-begirada hori beharrezkoa dela bultzatzen duen zentzua bera argitzeko, orduan, zera

ulertuko dugu: begiratzeko ari den horrek noizbait bere burua ikusi beharko duela. «Norberaren buru» hori ez da begirada, ezta kontzientzia bera ere. «Norberaren buru» hori da begiradari berari eta kontzientziaren eragiketei zentzua ematen diena. Kontzientzia baino lehenagokoa da, eta kontzientzia bera baino transzendentagoa. Modu zabal batean, «norberaren buru» horri «gogo» esango diogu, eta ez dugu kontzientziaren ekintzekin nahastuko, ezta kontzientziarekin berarekin ere. Baina norbaitek gogo harrapatu nahi duenean kontzientziaren beste fenomeno bat balitz bezala, gogoak ihes egiten du, ez baitu onartzen errepresentaziorik edo ulermenik.

Barne-begiradak talka egin beharko du gogoak fenomeno guztietan jartzen duen zentzuarekin, eta baita norberaren kontzientziarekin eta norberaren bizitzarekin ere. Zentzuarekin egindako talka horrek kontzientzia eta bizitza argituko ditu. Horri buruzkoa da liburua, bere zentzu sakonenean.

Aurreko horretara guztira garamatza obraren tituluak. Baina bertan sartzean, lehen kapituluko lehen ahapaldiak honela esaten digu: «*Hemen kontatzen da nola zentzugabetasuna bihurtu dezakegun zentzu eta osotasun*». Eta kapitulu berean, 5. ahapaldian, zera argitzen du: «*Hemen hitz egiten da arduraz eta bilaketa apalez meditatzen duen guztiak lortzen duen barne-errebelazioari buruz*».

Helburua markatuta geratzen da: bizitzaren zentzugabetasuna zentzu bihurtzea. Eta, gainera, trazatuta geratzen da zentzuaren errebelaziora ailegatzeko modua, meditazio arretatsu baten bitartez.

Jo dezagun harira...

Lehen kapituluan, barne-errebelaziora iristeko modua garatzen da, jarritako helburura heltzetik urruntzen gaituzten jarrera faltsuez ohartaraziz.

Hirugarren kapitulua «zentzugabetasuna» deritzogunari buruzkoa da. Kapitulu honen garapena «garaipena eta porrota» paradoxarekin hasten da, termino hauetan: «*Bihotzean porrota zeramaten haiek azken garaipena argiztatu ahal izan zuten. Arrakastatsu sentitu ziren haiek bidean geratu ziren, bizimodu lauso eta ilun baten jabe diren landareen gisa*». Kapitulu honetan, «porrota» aldarrikatzen da bizitzako behin-behineko zentzuekin ez konformatze moduan, eta behin betiko bilaketak eragingo dituen atsegirik gabeko egoera moduan. Bizitzako behin-behineko arrakastetan jartzen ditugun xarmen arriskua azpimarratzen du; izan ere, horiek lortuz gero, gehiago eskatzen dute, azkenik etsipenera iritsiz. Lortzen ez badira, gainera, behin betiko etsipenera eramaten gaituzte, eszeptizismo eta nihilismo baterantz. Aurrerago, kapitulu berean, 1. ahapaldian, baieztatzen du: «*Bizitzan ez dago zentzurik, guztia heriotzarekin batera bukatzen bada*». Oraindik ere, frogatzeko dago, alde batetik, bizitza, hain zuzen ere, heriotzarekin batera bukatzen den ala ez; eta bestetik, bizitzak zentzua duen ala ez duen heriotzaren beraren arabera. Galdera bikoitz horiek logikaren

mundutik urrun daude, eta, beraz, existentziaren alorretik ebazten saiatuko gara liburuan zehar.

Dena den, III. kapituluko 1. ahapaldi hori ez da presaka irakurri eta berehala hurrengo ahapaldira pasatzekoa. Geldialdi bat eta hausnarketa batzuk eskatzen ditu, bertan baitago Doktrinaren erdigunea. Hurrengo ahapaldiak balioen eta giza ekintzen erlatibotasuna azpimarratzeaz arduratzen dira.

IV. kapitulua. Aintzat hartzen dira gizakiaren gain jarduten duten dependentziazko faktore guztiak, aukeratzeko eta libreki jarduteko posibilitateak murrizten dizkioten horiek.

V. kapitulua. Egunerokoak ez diren kontzientzia-egoera batzuk azaleratzen ditu. Fenomeno iradokitzaile horiek, ohi ez bezalakoak ez badira ere, badute bizitzaren zentzu berri bat susmatzen laguntzeko bertutea. Zentzuaren susmoa izatea urrun dago fedearen berri ematetik edo sinesmen bat sustatzetik. Baina lagundu egiten du bizitzaren zentzuaren ukatze eszeptikoa erlatibizatzen edo aldatzen.

Fenomeno horien bizipenak duda intelektual bat sortzea baino ez du lortzen, baina esperientziazko fenomeno bat izanik, subjektuaren eguneroko bizitzan eragiteko abantaila du. Zentzu horretan, soilik bizitzaren aurrean hartzen ditugun jarrerei buruzko ikuspuntua aldatzen lagun dezakeen teoria batek edo ideia multzo batek baino indar transformatzaile handiago du.

Kapitulu honetan aipatzen diren gertaerek, ikuspuntu objektibo batetik egia izan ala ez, ohikoa ez den egoera mental batean jartzen dute subjektua. Gertaera horiek gaitasuna dute errealtatea bizitzeko beste modu bat susmatzera eramaten duten intuizioekin batera agertzeko. Eta, hain zuzen ere, beste errealtate mota bat «susmatze» horrek horizontea zabaltzen digu. Garai guztietan «mirari» deritzogun horiek (pertzepzio normalari aurre egiten dioten fenomenoak diren neurrian) beste eremu mental batean kokatzen dute subjektua, intuizioen bitartez. «Kontzientzia inspiratua» deritzogun eremu mental horri; esanahi asko eta, hurrenez hurren, adierazpen ugari egozten dizkiogu.

Kapitulu honetako ahapaldiek bukatu gabeko esperientzien zerrenda mota bat osatzen dute; horiek biziz gero, ordea, nahikoa bizitzaren zentzuari buruzko galderak egitera bultzatzeko. Beren erregistroa hain da psikikoki bizia, non beren esanahiari buruzko erantzunak eskatzen baitituzte. Erantzunak zeinahi direlarik ere, uzten duten barne-zaporea errealtate ezberdin baten susmoarena da betiere. Ikus ditzagun kasuak: *Noizbehinka, gertatzear zeuden gertaerak antzeman ditut. 2. Noizbehinka, urrutiko pentsamendu bati igarri diot. 3. Noizbehinka, sekula bisitatu gabeko lekuak deskribatu ditut. 4. Noizbehinka, zehazki kontatu dut nire absentzian gertatutakoa. 5. Noizbehinka, neurri gabeko poztasun batek hunkitu nau. 6. Noizbehinka, erabateko ulermen batek hartu nau. 7. Noizbehinka, guztiarekiko batasun*

perfektu batek liluratu nau. 8. Nire ametsak apurtu ditut, eta errealitatea modu berri batez ikusi dut. 9. Noizbehinka, lehendabiziko aldiz ikusitakoa bigarrenaz ikusitakoa bezala hauteman dut.... Eta horrek guztiak zer pentsa eman dit. Ongi ohartzen naiz esperientzia horiek gabe ezin izango nintzatekeela zentzugabekeriatik atera.

VI. kapituluak bereizi egiten ditu loaldia, lo arina eta esna-aldia. Intentzioa zera da: eguneroko errealitatearen eta hautematen den errealitatearen doitasunari buruz normalki izaten den ideia erlatibizatzea.

VII., VIII., IX., X., XI., XII. eta, gero, **XV., XVI., XVII.** eta **XVIII. kapituluak**, zuzenki edo zeharka, Indarraren fenomenoari buruzkoak dira.

Indarraren gaia interes handikoa da, zeren eta modu praktiko batean ahalbidetzen baitu zentzuarenganako esperientziak martxan jartzea. V. kapituluaren komentatutakoarekin ez da horrela gertatzen, ordea; izan ere, bertan azaldutako bizipenak, nahiz eta zentzuaren susmoa eman, bat-batean edo norabiderik gabe gertatzen dira. Indarrari eta bere ondorioei buruz hitz egingo dugu Barne-begiradaren komentarioen amaieran.

Orain, liburuko azken lau kapituluetan jarriko dugu arreta. **XIII. Kapituluak** "Baliozko ekintza printzipioak aurkezten ditu. Bizitza koherente bat eraman nahi dutenei bizitzako jarrera bat adieraztean datza. Jarrera hori barne-erregistroan oinarritzen da: batasuna eta kontraesana. Horrela, «moral» horren justifikazioa jarrera horrek sortzen dituen sentrazioetan dago, eta ez leku, denbora edo eredu kultural bateko ideia edo sinesmen partikular batean. Nabarmendu nahi den barne-erregistro hori kontuan hartu beharreko adierazle batzuekin batera dator: 1.-Barne-hazkunde sentrazioa. 2.-Denboran jarraitasuna. 3.- Etorbizunean errepikatuko dela baieztatzea.

Barne-hazkunde sentrazioa adierazle baikor eta egiazko bezala agertzen da, betiere norberaren buruaren hobekuntzako bizipenarekin batera. Denboran jarraitutasuna izateari dagokionez, aukera ematen digu ekintzaren ondorengo egoerak begiratzeko, baldin eta ekintza ez baldin bada egoeraren arabera aldatu gerora imajinatzen ditugun egoeretan, edo gure gogoan gerora begira erkatzen ditugun egoeretan.

Azkenik, ekintza igaro eta gero, hura errepikatzeko gogo bizi bada, barne-batasun sentrazioa baieztatzen dela diogu. Ordea, kontraesanezko ekintzek baliozko ekintzek dituzten hiru ezaugarrietako bat izan dezakete, edo agian bat ere ez; baina inola ere ez dituzte hiru ezaugarriok izango.

Badago, ordea, zorrozki begiratzen badugu, «baliozko» edo «kontraesanezko» esan ezin geniezaiokeen ekintza mota bat. Ekintza horiek ez dute oztoporik jarriko gure garapenean, ezta garrantzizko hobekuntzarik eragingo ere. Atsegina edo ezatsegina izan daiteke, baina baliagarritasunaren ikuspuntutik ez du ez ematen ez kentzen. Erdi-mailako ekintza hori eguneroko ekintza da, ohikoa eta mekanikoa, agian beharrezkoa iraupenerako eta elkarbizitzarako; baina ez da, izatez, ekintza moral bat, hemen aztertzen ari garen baliozko edo kontraesanezko ekintzaren ereduaren arabera.

«Baliozko ekintza» deritzegun printzipio horiek honela sailkatzen ditugu:

1. Egokitzapen printzipioa. 2. Akzio eta erreakzio printzipioa. 3. Akzio egokiaren printzipioa. 4.- Proporzioaren printzipioa. 5. Onespenaren printzipioa. 6. Plazeraren printzipioa. 7. Berehalako ekintzaren printzipioa. 8. Ulertutako akzioaren printzipioa. 9. Askatasunaren printzipioa. 10. Elkartasunaren printzipioa. 11. Aurkakoak ukatzearen printzipioa. 12. Ekintzak pilatzearen printzipioa.

XIV. kapituluak «Barne-bidearen gidari» buruz dihardu. Gida horrek ez du esperientzia gidatu batek baino asmo handiagorik. Baina, hori bai, fenomeno «iradokitzaile» edo «zentzuaren susmoarekin» zerikusia duten fenomenoen norabide transzendentean kokatzen da.

XIX. kapituluak, «barne-egoerak» gaiari buruz mintzatzen da. Kapitulu hori ez da esperientzia gidatu bat, eta ez du konponbide transferentzialik bilatzen; baizik eta modu alegorikoan irakurlea egun bizitzen ari daitekeen egoerak deskribatzen saiatzen da. Kapitulu honek modu poetiko eta alegorikoan deskribatzen du zer egoera desberdinetan aurki daitekeen pertsona bat bere bizitzako zentzua bilatzeko bidean. Lehenengo ahapaldian esaten denez: «... *Orain, zure bizitzan zehar, eta bereziki zure lan ebolutiboan zehar, izan ditzakezun barne-egoerak hauteman behar dituzu* ». Hemen «lan ebolutibo» gisa ulertzen dugu bizitzaren zentzuaren garapenean gauza ezezagunak argitzen laguntzen digun lan hori.

XX. kapitulua, «barne-errealitatea» izendatua, apur bat iluna da. Badirudi interpretazio zaila duela teoria sinboliko eta alegorikoekin edota inpultsoen ekoizpen, itzulpen eta deformazio fenomenoekin trebatua ez dagoenarentzat. Edozein modutan, eta azken kapitulu honen ulermen teorikoa alde batera utziz, badago bere barne-egoerak edo estatuak nolabaiteko argitasunez hautemateko gaitasuna duen jendea, eta, edozein paragrafo poetikorekin egingo luketen bezala, bere esanahia maila sakonean antzematen duena. Itzul gaitzen orain Indarrarekin zerikusi duten kapitulueta... Indarrari buruzko gaiak, gune argitsuak, barne-argiak, bikoiztasunak eta energiaren proiektzioak bi ikuspegi onartzen dituzte. Lehena: esperientzia pertsonalaren fenomenotzat hartzea eta, beraz, sentitu ez duten pertsonengan nolabaiteko inkomunikazio erlatiboa mantentzea, kasurik onenean gutxi gorabeherako deskribapen subjektiboetara mugatuz. Bigarrena: esplikatzen ahal izango duen teoria zabalago baten barnean kokatzea, esperientzia pertsonalaren frogari heldu gabe. Psikologia transzendentetik deribatzen dela jotzen dugun teoria zabalago hori, bere konplexutasun eta sakontasunagatik, ezinezkoa da «*Siloren Mezuar* iruzkinak» deritzogun hauetan azaltzea.

“Siloren Mezua”ren bigarren atala

«Esperientzia» deritzogun bigarren atal honetan, bizitza pertsonaleko egoera eta kasu ezberdinetarako aurkezten diren zortzi zeremonia hausnartzen ditugu.

la zeremonia guztietan bi errealitate daude, zeinek, esplizituki jorratu ala ez, bizitzarako daukaten esanahi sakonen garrantzia erakusten baitigute. Interpretazio ezberdinak onartzen dituzten bi errealitate horiek «Hilezkortasuna» eta «Sakratua» izendatzen ditugu. Mezuak garrantzi handia ematen die gai horiei, eta askatasun osoa izan behar dela dio hilezkortasunean eta sakratua den horretan sinesteari edo ez sinesteari buruz; zeren eta, izan ere, pertsona batek gai horien aurrean duen jarreraren arabera, horrelakoa izango baita haren bizitzaren norabidea.

Mezuak onartzen ditu funtsezko sinesmenak irekitasunez aztertzeak dakartzan zailtasunak, eta topo egiten du pentsamendu librea eta kontzientzia ona eragozten dituen zentsura eta auto-zentsurarekin. Mezuak interpretazio libreari bide ematen dion testuinguruan, zera onartzen da: batzuentzat, hilezkortasuna bizitzan burututako ekintzez ari izaten da, ekintza horiek heriotza fisikoaren ondoren mundu fisikoan jarraitzen duten heinean; beste batzuentzat, maite izan diren pertsonen edota talde eta gizarteen oroimena gordetzeak iraunkortasuna bermatzen du; beste batzuek, berriz, iraunkortasun pertsonaltzat onesten dute hilezkortasuna, existentziaren beste maila batean, «paisaia» ezberdin batean.

Interpretazio libreari jarraituz, batzuek «sakratua den» hori afektu sakon baten eragile dela sentitzen dute. Haientzat, seme-alabek edo maite diren beste pertsonak «sakratua» irudikatzen dute, eta inolako arrazoiengatik ere doilortu ezin daitekeen balio gailentzat dute. Badira gizakia eta bere eskubide unibertsalak sakratutzat hartzen dituztenik ere. Beste batzuek jainkotasuna hartzen dute «sakratuaren» esentzia gisa.

Mezuaren inguruan sortzen diren komunitateetan, uste da hilezkortasunaren eta «sakratuaren» aurrean hartzen diren jarrerak ez soilik toleratu, baizik eta benetan errespetatu ere egin behar direla.

«Sakratua» gizakiaren sakontasunetik azaltzen da; hortik dator Indarraren esperientziak ezohiko fenomeno bezala duen garrantzia, eguneroko bizitzan indarrez ager daitekeelako. Esperientziarik gabe guztia da zalantzazkoa; Indarraren esperientziaren bitartez ziurtasun sakonak ditugu. Ez dugu fedea behar «sakratua» ezagutzeko. Ofizioa eta Esku-ezartzea bezalako zeremonietan lortzen da Indarra. Ongizatea eta Asistentzia zeremonietan ere hauteman daitezke Indarraren eraginak. Indarrarekin harremana izateak, batetik, energia psikofisikoa azalerrateza eta handitzea eragiten du, batez ere eguneroko bizitzan ekintza koherenteak gauzatzen baldin badira; eta, bestetik, hazkunde espiritualerantz bideratzen gaituen barne-batasuna sortzen du.

Lehen esperientzia «Ofizioa» da, eta jende multzo baten eskabidez egiten den zeremonia sozial bat da. «Zeremonia-emailea» eta «laguntzailea» esaten zaien partaideek, ozenki, elkarrizketa antzeko bat sortzen dute, hasieratik amaieraraino, guztiek sekuentzia berbera jarraitzeko moduan.

Esperientzia horretan, erlaxaziozko errekurtsio batzuk erabiliz, eta une baten ondoren, irudi bisual eta zinetesikoen agerpena ahalbidetzen da. Azkenez, irudi horiek mugitzen den «esfera» moduko baten izaera hartzen dute, zeinak Indarra askatzeko gai baitira.

Momentu batean, Barne-begiradako printzipio edo pentsamendu bat aipatzen da meditazio-gai gisa. Azkenik, eskabide bat egiten da, bakoitzak bere «behar» sakonena bezala sentitzen duenaren aldera.

«Esku-ezartzea» deritzon beste zeremonia sozial batean, Indarraren agerpena Ofizioa zeremonian baino modu zuzenagoan lantzen da. Ez da esferaren oroipenik edo agerpenik eskatzen. Ez da printzipio baten irakurketarik edo meditatze gairik ere iradokitzen. Eskabide bat mantentzen da Ofizioaren mekanika berberean.

«Ongizatea» deritzon hirugarren zeremonia ere partaideen eskabidez egiten da. Dударik gabe, pertsona bat edo gehiago ahalik eta modurik bizienean oroitzeko jarrera mental bat lortzean datza, pertsona horien presentzia eta tonu afektibo bereizgarrienak gogora ekartzen saiatuz. Gogoan ditugun pertsona horiek, momentu horretan, bizitzen ari diren zailtasunak ahal den modu bizienean ulertzea bilatzen da. Hortik, egoeraren hobekuntza aintzat hartzeari ekingo zaio, egoeraren arintzea nabaritu ahal izateko moduan.

Zeremonia horrek agerian jartzen du askotan eta bat-batean adierazteko erabiltzen ditugun «nahi onen» edo «asmo onen» nolabaiteko mekanismo bat. «Egun zoriontsua izan dezazula» edo «Zorionak, eta urte on eta askotarako», «Zorte on azterketarako», «Zorte on zure probarako» edo «Gaurko zailtasuna gaindi dezazula», etab., etab.

Argi dago zeremonia honetan jarrera mental on batetik egiten direla «eskaerak», erregistro afektibo biziak nabarmenduz. Besteen alde eta baldintza onenetan egindako «eskaerek» beharrezko laguntzak emateko jarrera onean jartzen gaituzte, gure norabide mentala hobetuz eta besteenganako dugun komunikatzeko aukerak indartuz, gainera.

Eskaeretan kontuan hartu beharra dagoen beste puntu garrantzitsu bat da besteen alde eskatzea, beren zailtasunak gaindi ditzaten eta beren ahalmenik hoberenak berrezar daitezten. Gai honen inguruan ez da nahasketarik egon behar. Ikus dezagun kasu bat. Hilzorian dagoen pertsona baten osasunaren alde eskatzea egokiena dela pentsa genezake, ondoeza jasaten ari den pertsona bati mina eta sufrimendua arintzean datzalako; baina, arretaz ibili beharra dago eskaera hori bideratzean, kontua ez baita norberarentzat hoberena zer den eskatzea, sufritzen ari den pertsona bizirik eta gure ondoan mantendu nahian. Eskaera egoki bat hilzorian dagoen pertsonarentzat hoberena den horri begira egin behar litzateke, eta ez guretzat onena denari begira. Hilzorian sufrimendua jasaten ari den pertsona horrekin afektiboki lotuta gauden egoera horretan, pentsatu beharko genuke beharbada egoera horretatik adiskideturik eta bere buruarekin bakean atera nahi izatea izan daitekeela bere nahia. Kasu honetan, eskaera da «kaltetutako pertsonarentzat hoberenena zer den» eskatzeko, eta ez niretzat hoberena denaren alde, beste pertsona atxikitze gogoz.

Zeremonia bukatzeko, horrela nahi duten guztiei aukera emango zaie gure artean ez dauden pertsona maitatuen presentzia sentitzeko, pertsona horiek **«gure denboran eta espazioan egon ez arren»** gurekin harremanetan baitaude maitasunaren, bakearen eta poztasun beroaren esperientzian... Azkenik, norabide berean dauden partaide guztientzat ongizate korrante bat sortzea bilatzen da zeremonia honetan.

Laugarren zeremoniari «Babesa» esaten zaio. Hurrei zuzendua dago. Bertan parte hartzen dute zeremonia-emaileak, laguntzaileak, haurren senideek eta adiskideek. Egoera-aldaketako zeremonia honetako esanahien eta formalitateen azalpenak zeremonian zehar ematen dira.

Bosgarren zeremonia «Ezkontza»rako da. Izaera soziala du eta, horregatik, hainbat bikotek elkarrekin bat egiteko eta egoera-aldaketaren testigantza publikoa emateko desioz ospatzen da. Babeserako zeremonian bezala, zeremonian zehar ematen dira esanahiei eta formalitateei buruzko azalpenak.

Seigarren zeremonia, «Asistentzia» deritzona. Bakarkakoa da funtsean. Zeremonia-emailearen hizketaldiaren girotzean azaltzen den bezala: *«Zeremonia hau afektu handikoa da, eta egiten duenak bere aldetik hoberena ematea eskatzen du. Zeremonia hau interesatuaren edo bere zaintzaileen eskabidez errepika daiteke. Zeremonia-emailea bakarka dago hilzorian dagoenarekin. Hilzorian dagoen pertsonaren itxurazko egoera zein izan, buru-argitasuna edo konorterik eza, zeremonia-emailea harengana hurbilduko da ahots eztiz, argiz eta geldi hitz eginez»*. Zeremonia-emaileak irakurtzen dituen esaldi asko Barne-begiradaren XIV. kapitulutik datoz, «Barne-bidearen Gida» izenburupean. Bertan agertzen diren sekuentziak, irudiek eta alegoriek gidaturiko esperientzia sakon baten egitura dute.

Zazpigarren zeremonia «Heriotzarena» da. Hau ere, «Asistentziarena» bezala, zeremonia-emaileak gidatzen du. Kasu honetan, ordea, hildakoaren senide, adiskide eta ezagunei zuzendua dago.

Zortzigarren eta azken zeremonia, «Onarpena» izeneko, zeremonia-emaileak eta laguntzaileak zuzentzen dute. Girotzean dioen bezala, komunitatean sartzeko zeremonia bat da... Jende-talde batek eskatuz gero eta ofizio baten ondoren egiten da. Esperientzia, ideal, jarrera eta jardunbide berberak partekatzen dira. Parte hartzera doan guztiari, aurretik, testua eskuratuko zaio. Testigantza kolektibo baten egitura du.

“Siloren Mezua”ren hirugarren atala

Hirugarren atal honetan, pentsatzearen, sentitzearen eta egitearen arteko koherentzia lortzeari buruzko 17 gai aurkezten dira. «Bidea» deritzo koherentziaren eta bizitzaren batasunaren bidean aurrerapausoak eman ahal izateko, edota kontraesana eta bizitzaren desintegrazioa saihesteko jarraitzen den lan honi. Bi bloketan banatuko ditugu 17 gaiok.

Zortzi gaiez osatzen den lehen sailean, koherentziaren bila dabilenaren egoera kokatzen da, eta ildo horretan aurrerapausoak eman ahal izateko ibilbidea adierazten da.

Azken bederatzi gaietan, koherentziaren ildoan aurrera egiteko saihestu behar diren zailtasunak adierazten dira.

1. *«Zure bizitza heriotzarekin amaitzen dela sinesten baduzu, pentsatzen duzunak, sentitzen duzunak eta egiten duzunak ez du zentzurik. Dena inkohorentzian, desintegrazioan amaitzen da»*.

Hemen zera baieztatzen da: ez dela posible justifikaziorik, heriotzaren perspektiban kokatzen bada. Bestalde, bizi-beharrek eraginda egiten dugu gure bizitza. Epe motzean bizitzaren jarraitutasuna ahalbidetzen duten

bulkada handiak dira jatea, edatea, eraso naturaletatik babestea eta plazera bilatzea. Bizi-iraunkortasunaren ilusioari esker, ekintza guztiei euts dakieke, baina ezin dira justifikatu iraunkortasunaren ilusiotik kanpo.

2. *«Zure bizitza heriotzarekin ez bada amaitzen, pentsatzen duzunak, sentitzen duzunak eta egiten duzunak bat egin behar dute. Guztiak aurrera egin behar du koherentziarantz, batasunerantz».*

Hemen baieztatzen da iraunkortasunaren edo heriotzaz haraindiko bizitzaren proiektioan sinesten bada, hori justifikatu egin beharko dela pentsatzearen, sentitzearen eta egitearen arteko batasunarekin.

3. *«Besteen min eta sufrimenduak ez badizu axola, eskatzen duzun laguntza orok ez du justifikaziorik aurkituko».*

Harremanen munduan ezin dira justifikatu norberaren beharrak, besteenak ukatzen badira.

4. *«Besteen min eta sufrimenduak ardua badizu, sentitzen duzuna pentsatzen duzunarekin bateratu behar duzu, eta zure ekimena besteei laguntzen jarri».*

Besteen min eta sufrimenduaren aurrean jarrera koherente bat izateak eskatzen du pentsatzen, sentitzen eta egiten denak norabide berbera izan dezan.

5. *«Ikas ezazu besteekin jokatzeko, haiek zurekin jokatzeko nahi duzun bezala».*

Giza harremanen mundua, koherentea izatekotan, ekintzen elkarrekotasunean oinarritu beharko da. Jarrera hori ez da giza portaeran «naturalki agertzen», baizik eta hazten doan zerbait bezala hartzen da, ikasi behar den zerbait. Jokabide hori «urrezko arau» gisa ezagutzen da. Aipaturiko jokabidea landu eta perfektionatu egiten da denboran zehar, harremanen munduan.

6. *«Ikas ezazu mina eta sufrimendua gainditzeko zugaran, zure kideengan eta gizartean».*

Hemen ere ikastea posible da, gizatasuna ustezko izate «natural» gisa utzi gabe. Ikasketa hori besteengana zabaltzen da, norberaren sufrimendua gainditzeko ondorio gisa.

7. *«Ikas ezazu zugaran eta zugaratik kanpo dagoen bortxakeria gainditzeko».*

Norberaren garaipena eta koherentzia lortzeko beharrezkoa den ikasketa ororen oinarri gisa.

8. *«Ikas ezazu zugar eta zugarandik kanpo Sakratua denaren zeinuak antzematen».*

«Sakratua», ordezka ezina den intuizio hori hazi eta hedatu egiten da hainbat arlotan; batetik, norberaren bizitza zuzentzera heltzen da (norberaren barnean Sakratua dena), eta, bestetik, bizitzako ekintzak zuzentzera (norberarengandik kanpo Sakratua dena).

9. *«Ez utzi zure bizitzari igarotzen, zeure buruari ‘Nor naiz?’ galdetu gabe»:*

Norberaren esanahiei dagokienez, eta «norberaz» duguna distortsionatzen duenari dagokionez.

10. *«Ez utzi zure bizitzari igarotzen, zeure buruari ‘Nora noa?’ galdetu gabe»:*

Bizitzako norabidearen eta helburuen zentzuan.

11. *«Ez utzi egun bat igarotzen, nor zaren erantzun gabe».*

Norberaren mugatasunari dagokionez, bakoitzak egunero egiten duen oroipena da.

12. *«Ez utzi egun bat igarotzen, norantz zoazen erantzun gabe».*

Norberaren bizitzako helburuei eta norabideari dagokienez, bakoitzak egunero egiten duen oroipena da.

13. *«Ez utzi poztasun handi bat zure barnean eskertu gabe».*

Ez soilik poztasun handi bat onartzeak duen garrantziagatik, baizik eta «eskertzean» areagotzen den jarrera baikorragatik, bizipenak berak duen garrantzia indartuz.

14. *«Ez utzi tristura handi bat igarotzen, zure barnean “gorderik” geratu zen poz hura eskatu gabe».*

Hain zuzen ere, bere momentuan poztasunezko bizipenak kontziente egin baziren, momentu gaitzetan (afektu baikorrez “kargaturik” dagoen) oroimenaz baliatzen gara haiek gogora ekartzean. Pentsa genezake «konparazio» horretan galtzekoak dituela egoera baikorrak; baina ez da horrela, zeren eta «konparazio» horrek egoera ezkorren inertzia afektiboa aldatzea ahalbidetzen baitu.

15. *«Ez imajinatu bakarrik zaudenik zure herrian, zure hirian, lurrean eta mugagabeko munduetan».*

«Bakardade» hori beste intentzio batzuen «abandonu» bezala jasaten dugu, hots, etorkizunaren «abandonua», azken finean. «Zure herriaz, zure hiriaz, lurraz eta mugagabeko munduez» hitz egiteak leku oro eta bakoitza —txikia edo handia, jendez hustua edo betea izan— intentzio posible guztiaren bakardadearen eta ezerezaren aurrean jartzen du. Kontrako jarrera norberaren intentziotik abiatzen da, eta gure pertzepzioa eta oroimena gertatzen diren denboratik eta espaziotik kanpo hedatzen da. Hainbat intentzio ditugu lagun, eta oraindik badago «zerbait» itxurazko bakardade kosmikoan. Badago bere presentzia erakusten duen zerbait.

16. *«Ez imajinatu kateaturik zaudenik denbora eta espazio honetan».*

Ezin baduzu beste denbora eta espazio bat imajinatu, beste «paisaia» batzuetako bizipenak gertatzen diren barneko espazio eta denbora bat susma ditzakezu. Intuizio horietan gainditu egiten dira denboraren eta espazioaren determinismoak. Pertzepzioari edo oroimenari lotuak ez dauden esperientziez ari gara. Esperientzia horiek zeharka ezagutzen dira, soilik denbora horietan «sartzean» edo «irteteen». Intuizio horiek «Nia» lekualdatzearen ondorioz gertatzen dira, eta bere hasiera eta amaiera «Nia»ren moldaera berri batekin ezagutzen dira. «Paisaia» horietako zuzeneko intuizioak (espazio sakon horietan) ilun gogoratzen dira denborazko testuinguruen bitartez, sekula ere ez pertzepzio- edo irudikapen-«objektuen» bitartez.

17. *«Ez imajinatu zure heriotzan bakardadea betiko bihurtzen denik».*

Heriotza «ezerez» edo bakardade osotzat hartuz, argi dago esperientzia sakon horren «aurrekoak» edo «gerokoak» ez duela irauten. Gogoia «Nia»ri loturiko kontzientziaz harago doa, eta baita pertzepzioa eta errepresentazioa gertatzen diren espaziotik eta denboratik ere. Hala ere, Espazio Sakonetan gertatzen den ezer ezin da esperientzian agerian utzi.

Silo

Punta de Vacas-eko Ikastegia

2009ko martxoak 3